

2023an erregistratutako langabezia

2023an zehar LANBIDEko bulegoetan 16.699 langabe ezberdin gutxiago erregistratu dira, murrizketa balore erlatiboetan % 7,6koa izan da. 220.130 langabe ezberdin egon dira urtean zehar.

• SEXUA

Azken urtean langabezian dauden erregistratutako pertsona kopurua bai gizonezkoen artean bai emakumezkoen artean murriztu egin da. Lehenengoen artean % 9,3 murriztu da eta bigarrenengoen artean % 6,2 (90.109 gizonezko erregistratu dira urtean zehar eta 113.322 emakumezko). Gaur egun langabeen % 55,7 emakumeak dira. Pandemiaren eragineko krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan; gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen hasiera batean, baina talde hau errekonferentzia ahalmen handiago erakusten ari da.

• ADINA

Azken urte honetan, langabezian dauden eskatzaileen kopuruak behera egin du adin-talde guztietan, 55 urtetik gorakoetan izan ezik; 1.186 langabetu gehiago izan dira adin-tarte honetan (% 2,6ko igoera). 25-34 urteko tartean jaitsi da gehien langabeen kopurua balio erlatiboetan (%-10,9) eta balio absolututan, aldiz, 35-44 urteko tartean (%-10,6). Langabeen % 46,3, 44 urtetik gorakoak dira, % 32,2 ez dira 35 urtera iristen eta gainerako % 22,9a, 35-44 urte bitartekoak dira. Laneratzeko zailtasunak areagotu egiten dira langabetuen adinak gora egiten duen neurrian. Krisiak langabezia estrukturalako poltsa zabalak utziko ditu langabe helduenen artean, egungo hobekuntza ekonomikoaren egoera gorabehera.

• JARDUERA EKONOMIKOA

2023an langabe kopuruak behera egin du ia sektore guztietan. Salbuespenak etxeko jarduerak eta erauzketa industriak izan dira, aurreneko kasuan 107 pertsona gehiago zenbatu dira (% 1,39ko igoera) eta bigarrenengan berdin mantendu dira. Aurreko enplegurik ez duten pertsonen artean ere gehitu egin da langabezia (+1.260 pertsona, % 6,18 gehiago).

Azken urtean merkataritza jarduera nabarmendu behar da hemen murriztu baita gehien langabezia; 2.959 pertsona gutxiago, hain zuzen ere. Langabezia nabarmen murriztu den beste jarduerak batzuk honako hauek izan dira: manufaktura-industria (-2.833 pertsona), administrazio-jarduerak (-2.763), ostalaritza (-1.783) eta hezkuntza (-1.189).

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Urte honetan, epe laburreko langabetu kopurua 20.738 pertsonatan murriztu da eta epe luze-koa, aldiz, 4.039 pertsonatan hazi. Balore erlatiboetan, epe luze-ko langabetuen kopuruaren hazkundea % 6koa izan da eta epe laburreko langabeen murrizketa % 13,6koa.

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Azken urtean, hiru lurralde historikoetan jaitsi da erregistratutako langabeen kopurua. Araban % 6a murriztu da (-2.269 pertsona), Bizkaian %7,6a (-9.166 pertsona) eta Gipuzkoan %8,5a (-5.264 pertsona).

Euskal hiriburuen artean, Donostian jaitsi da gehien balio erlatiboetan erregistratutako langabeen kopurua, % 11,3ko jaitsierarekin (-1.710 pertsona). Gasteizen, langabezian dauden pertsonen kopurua % 8,1 jaitsi da (-2.312 pertsona), eta Bilbon, azkenik, % 7,2an murriztu da (-2.841 pertsona).

Langabeen kopuruak behera egin du eskualde guztietan. Langabezian dauden pertsonen kopuruan behar bada esanguratsuak izan dituzten eskualdeak honako hauek izan dira: Ezkerraldea

2023an erregistratutako langabezia

(-2.468), Gobela (-836) eta Oarsoaldea (-745). Balio erlatiboetan, jaitsierarik handienak Arabako Errioxan (%-16,83), Arabako Ibarretan (%-14,52) eta Lea-Artibain (%-12,97) izan dira

• LANGABEZIA - PRESTAZIOA

2023an 49.973 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko urtean baino 6.817 langabe gehiagok. Langabeen % 24,4k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 29.192 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren arabera prestazioa, hau da, langabeen % 14,3 dira horiek. 20.601 langabek (% 10,1), berriz, sorospren-prestazioren bat jasotzen dute.

Aurreko urtearekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 4,8 puntu hazi da.

• IKASKETA MAILA

Langabeen % 50,5ek (102.792 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken urtean, oinarrizko prestakuntza-maila duten langabeak 19.382 gutxiago izan dira (-% 15,86); talde horrek izan du beherakada handiena balio absolutuetan.

Batxilergoa egin duten langabetuak langabe guztien % 8,4 dira. Azken urtean % 19,39 jaitsi dira (-4.134 pertsona), eta ikasketa maila hori dutenen artean murriztu da langabezia gehien balio erlatiboetan.

Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabeak 53.986 dira, guztizkoaren % 26,5. Talde horretan bakarrik igo da langabeen kopurua: % 21,5 eta 9.554 pertsona gehiago.

Azkenik, % 14,5ek (29.472 pertsona) unibertsitate-ikasketak ditu. Ikasketa-maila hori duten langabetuak % 8,5 gutxiti dira urtean (2.737 pertsona gutxiago).

• JATORRIA

Langabeen % 18,3 (37.136 lagun), atzerritarrak dira. 2022arekin alderatuta, atzerritar langabetu kopurua % 1,04 murriztu da, eta bertakoak, aldiz, % 8,93.

Langabe atzerritarren % 34,4a Latinoamerikakoak dira, % 27,1a Afrika iparraldetik datoz, % 15a Europako Esparru Ekonomikotik, % 11,3a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,2a, azkenik, Asiatik.

Eremu gehienetatik etorritakoen artean egin du behera langabeen kopuruak. Beherakada handiena Europako Esparru Ekonomikotik etorritakoen artean izan da, 674 pertsona gutxiagorekin, eta, ondoren, Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoen artean, 525 pertsona gutxiagorekin. Aldiz, hazkunderik handiena Latinoamerikatik etorritako pertsonen taldean gertatu da, 1.105 pertsona gehiago zenbatu baitira langabezia egoeran.

2023an erregistratutako langabezia

Lan-eskatzaile langabeak 2023an

	2023	2022	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	90.109	99.358	-9.249	-9,3%
EMAKUMEZKOAK	113.322	120.772	-7.450	-6,2%
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	23.385	24.666	-1.281	-5,2%
GIZONEZKOAK	13.021	13.591	-570	-4,2%
EMAKUMEZKOAK	10.364	11.075	-711	-6,4%
25-44 URTE:				
GUZTIRA	85.801	96.120	-10.319	-10,7%
GIZONEZKOAK	36.637	41.978	-5.341	-12,7%
EMAKUMEZKOAK	49.164	54.142	-4.978	-9,2%
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	94.245	99.344	-5.099	-5,1%
GIZONEZKOAK	40.451	43.789	-3.338	-7,6%
EMAKUMEZKOAK	53.794	55.555	-1.761	-3,2%
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	3.209	3.858	-649	-16,8%
INDUSTRIA	10.946	12.084	-1.138	-9,4%
ERAIKUNTZA	19.969	23.089	-3.120	-13,5%
ZERBITZUAK	147.659	160.711	-13.052	-8,1%
AURREKO ENPLEGURIK GABE	21.648	20.388	1.260	6,2%
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	35.334	37.603	-2.269	-6,0%
BIZKAIA	56.554	61.818	-5.264	-8,5%
GIPUZKOA	111.543	120.709	-9.166	-7,6%
EAE	203.431	220.130	-16.699	-7,6%